

# HIZKUNTZEN KUDEAKETARI LOTUTAKO PRAKTIKA ONAK JASOTZEKO FITXA

## ERAKUNDEAREN DATUAK (eskatzen diren 5 eremuak bete mesedez)

Datu hauek eta praktika onen fitxa betetzerakoan, baimena ematen duzu goian agertzen diren eremuak eta betetako praktika onen fitxa Euskaliteko webgunean argitaratzera, modu irekian zabaldu daitezzen.

1. Erakundearen izena:	ARTXARA, KOOP. ELKARTE TXIKIA
2. Sektorea:	Elikagaiak
3. Langile kopurua:	6
4. Webgunea:	<a href="http://www.elikagunea.eus">www.elikagunea.eus</a>
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	<p>Artxara kooperatibak Elikagunea kudeatzen du.</p> <p>Euskal Herriko elikagaien topagunea da Elikagunea, Azpeitiko Azoka Plazan kokaturik. Euskal Herriko elikagaiak sustatuz eta kontsumo eredua eraldatuz, lehen sektorea indartu nahi duen proiektu kooperatiboa.</p> <p>Azpeitia zentro bezala hartuta <b>150 km-ren bueltan ekoizten diren elikagaiak soilik</b> biltzen dituen gune bat da, heziketa gunea, dastaketa gunea, sukaldea, Basque Label harategia eta janari dendak osatua.</p>

## Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da:

Solaskidearen izen-abizenak:	Agurtzane Odriozola
Helbide elektronikoa:	<a href="mailto:info@elikagunea.eus">info@elikagunea.eus</a>
Telefonoa:	688 68 86 96

## PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:

**GOGORATU! EGITASMOA**

2. Praktika onaren azalpena:

Zer da? Zertan datza?

Nondik dator?

Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?

Gogoratu! egitasmoa Euskaltzaindiako arauen errebasoa egiteko eta ohiko akatsak zuzentzeko fitxak dira. Fitxa horietan arauak modu laburtuan azaltzen dira. Horrez gain, arau osoa ikusteko eta ariketatxo bat egiteko aukera daukagu. Egitasmo hau Elegunek - Azpeitiko Udalak, Euskara Patronatuaren bitartez, Azpeitiko enpresei hizkuntza-gestiorik egokiena lortzen laguntzeko zentro teknikoak- jarri zuen martxan Azpeitiko enpresetan eta bere helburua hizkuntza-kalitatea hobetzea da. Askotan, ez dugu denbora askorik izaten euskara hobetzeko ikastaroetara joateko; beraz, modu sinplean eta errazean, ohiko akatsak ekiditeko egitasmo baliagarria da. Guztira, 20 fitxa inguru izango dira.

## PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)

KUDEAKETA AURRERATUA  
**EUSKALIT**  
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

# GOGORATU!

## - (E) Z GERO

Aditzaren ostean, beti -(e)z gero idatziko da: *Hori eginez gero; hori egin dugunez gero.*

Orduekin eta bestelako denbora postposizioetan, ezkerre erabil daiteke: *Hamarrez gero edo hamarrek ezkerre, San Ferminaz gero edo San Ferminak ezkerre, atzoz gero edo atzo ezkerre.*

"*Honezkerre, horrezkerre eta harrezkerre*" aditzondoak honela idatziko dira, horrela erabili baitira euskararen literatura tradizioan, nahiz *horrezkerre* aditzondoaren maiztasuna beste biena baino askoz ere apalagoa den.



Ariketatxo bat  
egiteko, sakatu  
goiko irudian



Arauari buruzko  
informazioa ikusteko,  
sakatu goiko irudian

Ariketan klikatuz gero, ariketa egiteko aukera daukagu:



**ELEGUNE**

enpresen  
hizkuntza-gestiorako  
gune teknikoa  
centro de optimización  
de la gestión lingüística  
en las empresas

# GOGORATU!

## (E)Z GERO

Gaizki idatzita badago, zuzendu, eta zuzen badago, idatzi ONDO hutsunean.

\* Derrigorrezkoa

Joan den uztaila ezker, musukoa erabiltzea derrigorrezkoa da. \*

Zure erantzuna

---

Aitorrekin hitz egin ezker, dena konponduko duzu. \*

Zure erantzuna

---

Berandu iritsi zaren ezker, ez gara bazkaltzera joango. \*

Zure erantzuna

---

KUDEAKETA AURRERATUA  
**EUSKALIT**  
GESTIÓN AVANZADA



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Zer uste duk, hire zain egongo dela? Honez gero ezkontuta zegok, gizonal \*

Zure erantzuna

Eguraldi txarra dagoen ezkeru, etxean geratuko naiz. \*

Zure erantzuna

Baina zer uste dute horiek! Zazpiak ezkeru zain egon gara tren-geltokian eta ez da inor azaldu! \*

Zure erantzuna

Lasai, neska, honezkeru onik iritsi da eta etxera! \*

Zure erantzuna

Bidali

Arau osoa irakurtzeko, arauari buruzko botoian klikatuko dugu:

KUDEAKETA AURRERATUA  
**EUSKALIT**  
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

26  
-Z GERO

Euskal gramatikan baldintzako perpausak egiteko dagoen era arruntenetako bat, aditz adjektiboari *-(e)z gero* posposizioa erantsia da:

*Lana eginez gero, behar den bezala ordainduko dizute.*

Era berean, posposizio berberaz eta aditz jokatu batekin batera perpaus kausalak egin ditzakegu:

*Lana ondo egin duzunez gero, behar den bezala ordainduko dizute.*

Azkenik, aditz jokatu zein jokatu gabeekin batera denbora perpausak ere egin daitezke posposizio honen bidez:

*Eskolako lana eginez gero, jolas egitera joan zaitezke.*

Ikusten denez, posposizio hau elementu biz dago osaturik: alde batetik, instrumentalaren marka den *-z* atzizkiarekin eta, bestetik, *gero* aditzondoak.

Bi elementu horiek idazteko orduan tradizioak bi bide segitu ditu: Iparraldeko idazleek bereiz idatzi izan dituzte (*-z gero*) eta Hegoaldekoek, aldiz, batera (*ezkero, azkero*).

Aipatu erabilera horiek ez dira, dena dela, posposizio honek dituen bakarrak, denbora aditzondo gisa ere aski arrunta baita, aurreko izena beti mugatua duela:

*Heldu den igandean gero Baionako etxean aurkituko nauzu.*

*Irugarren umea ezkero ama asko...* (Eguzkitza, Gizarte-Auzia, 185).

Hori guztia, eta orobat Arantzazuko txostenaz geroz nagusitu den joera kontuan hartuta, ondoko hau proposatzea erabaki du Euskaltzaindiak:

1. Kasu guztietan *-(e)z gero* idatz bedi: *hori eginez gero, hori egin duzunez gero*.
2. Ordukin, eta oro har denbora posposizio gisa, *ezkero* ere idatz daitezke: *hamarrez gero / hamarrak ezkero, zortziaz gero / zortziak ezkero, San Ferminen gero / San Ferminak ezkero, atzo gero / atzo ezkero*.
3. *Honezkero, horrezkero* eta *harrezkero* aditzondoak, era horretan idatziko dira, horrela erabili baitira euskararen literatura tradizioan, nahiz *horrezkero* aditzondoaren maiztasuna beste baina baino askoz ere apalagoa den.

(Euskaltzaindiak, Donostian, 1995eko urtarrilaren 27an onartua)

KUDEAKETA AURRERATUA  
**EUSKALIT**  
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA